

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦



DANI BLANCO

Ametz (gaizto) bat izan dut

OSO PESIMISTA NABILELA azken aldian esaten dit emazteak, denari ateratzen diodala azpialde ilun bat. Bide onetik doa esaten duenarekin, baina ez nago, ez, pesimista, eszeptiko baizik, eta hori ez dakit txarra goa ez ote den.

Norbaitek gure bizitza eraldarazi du azken urteetan, ustezko oparotasunetik ustezko krisi garaira iragan garela sinestarazi digute, krisi hori gure bizkarraren gain jarritz, eurek etekinak ateratzen jarraitzeko aldaketa estrategikoak egin dituzten bitartean.

Orain, azken hamarkadetako produktio eta lan moduak birrindu dituztenean, berriz ere, hasi dira datozen hamarkadeetan garaile izango den sistema eraikitzen. Garbi dute egin beharrekoa, eta boterea, legeak, estatuak eta komunikabideak, gainegitura osoa euren alde. Eta kapitala, hori egiteko.

Guk, ordea, langile eta hiritar arruntok, pentsatzen dut, ez dugu ezer ikasi. Ez dakigu ere nondik nora joko duten. Merkatua ia geldirik egon den bitartean gu ere ia geldirik egon gara, eta orain, produkzioa, kontsumoa eta hazkuntzaren zurrumbiloan murgilduko gaituzte, ea nork, besteak zapalduz, lana lortzen duen, negozioa eraiki, beti ere aberastu nahian. Gehiengoak lortuko ez duguna.

Langile eta hiritar arruntok ez dugu ezer ikasi. Merkatua ia geldirik egon den bitartean gu ere ia geldirik egon gara. Berriz ere, produkzioa, kontsumoa eta hazkuntzaren zurrumbiloan murgilduko gaituzte

Azken urteetan esan eta lortu nahi genituenak, esku-bide sozialak, merkatu eremuak murriztea, oinarritzko soldata, berdintasunera hurbiltzeko zergak, ama lurra zainduz elikadura ekoiztea, energia xahutzeari uztea, hondakinak berrerabilgarri egitea, gutxien dutenei edo gizartetik at daudenei laguntzea; borondate onak eraginda esan ditugunak ahaztuko zaizkigu, eta, nor bere kontuetara, denok ordu estrak sartzen, etxeak, arropak, kotxe elektrikoak, eta tresna teknologiko berriak erosten hasiko gara, horretarako bankuetan kredituak eskatu, eta lehen bezain menpekoak izanez.

Ez hori bakarrik, ustezko demokraziaren azpitik azaldu diren diktadore ekonomikoak ezkututzen joango dira, eta itsuturik, ez gara konturatu ere egingo sistemaren aldeko alderdi politikoak bakarrik agindu ahal izango dutela, gizartearen estabilitatea ziurtatuz, alde bakarretik joan ahal den jendarte morroiaren bidean. Eta apoliti-koen talde handia sortuko da, aginte horren neutraltasun lelokratikoak hala bideratzen duelako, neutralizatu gaituztelako, berez.

Eskerrak esnatu naizela lozorrotik, eta Tsipras ikusten dudala greziar hiritarrei galdetu nahi diela esaten. Argi izpi bat, nire eszeptizismoa zalantzan jartzeko. Ordu erdi batean. ■

JOSU SANTESTEBAN



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Hamarratz

GASTEIZKO XVI. MENDEKO euskararen berri ematen duen Landuccioren hiztegian ikusi dut “hamarratz” hitza. Arabako eta mendebaleko beste zenbait tokitan bezala “armiarma” esan nahi zuen lehengo gasteiztarrentzat. Edonola ere, hitz berak beste esanahi batzuk ere har ditzakeela ematen du: leku batzuetan “olagarro” izan daiteke, eta, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak dakarrenez, “karramarro” hitzaren parekotzat ere jotzen da.

Animaliak ez ezik, pertsonak ere izan daitetze hamarratzak, eta arestiko hiru adierak baliatuta gainera. Izan ere, zaila izaten da

zehaztea animalia politiko batzuk atzeraka ari diren karramarroen antzera, garroak harrapakinari eusteko erabiltzen ari diren edota amarauna dagoeneko josia duten.

Arrazoi pertsonalengatik utzi omen du Hezkuntza Ministerioa Jose Ignacio Wertek. LOMCE lege polemikoa garatzen lagundu zion Montserrat Gomendio Hezkuntza Estatuko Idazkari ohiarekin eta orain ELGA erakundearen Parisko egoitzan ari denarekin ezkonduko da uztailaren 11n. Rajoyk azaldu duenez, Wert izan liteke ELGARako Espainiaren enbaxadore.

Hamarratz... eta hogeiesku! ■